

Donostia, 2020ko urriaren 23a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### EKIALDEKO BARRUTIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Marta Huarte Paño Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN Ekialdeko Barrutiari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Ogasuneko zinegotzi ordezkariak Ogasuneko Batzordean esandakoak argi utzi zuen ez dagoela hurbiltasun politikak garatzeko borondate politikorik; izan ere, ustez funts ekonomikorik ez izateak zer arazo dakartzan aipatu zuen soilik, eta ez kontu garrantzitsuena, alegia, Ekialdeko Barrutiko Batzarraren erabakiak errespetatzea.

Hain zuzen, COVID-19a ezin da aitzakia izan Batzordearen ekimen guztiak blokeatzeko. Onartzen dugu izan daitekeela % 2,5eko aurrekontu murrizketa bat, eta ondo baino hobeto dakigu pandemiak zer albo kalte dakartzan ekonomian, baina, gure ustez, inola ere ezin dira onartu Barrutiko Batzordearen erabakiak eteteko eta blokeatzeko erabakiak.

Hortaz, ez da informatu bide egokietatik, ez da adostasunik lortu, eta, beraz, beste behin agerian geratu da ez dela gardentasunez jokatu Batzarrarekin.

Barrutiko Batzarrak proposatutako ekimenak geratu izanak argi erakusten du Udal Gobernu honek ez dituela aintzat hartzen auzoekiko hurbiltasun politikak.

Betiko kontua da: bi urtez, gutxietsi egin da barrutia, eta, horren ondorioz, higatu egin da Batzarraren eta Udalaren arteko harremana, eta konfiantza eskastu.

Hori guztia areagotu egin da Batzarrak 2019-2020ko aurrekontuetan onetsitako ekimenak blokeatu eta 2020-2021eko aurrekontuak etetearen ondorioz.

Gure udal taldeak beste era batera marrazten du hiria: auzoak kudeatzea, egunerokoa kudeatzea, parte hartzea errespetatzea, elkarteari ahotsa ematea eta erabakiak errespetatzea; hau da, barrutiak modu progresiboan deszentralizatzea nahi dugu, uste baitugu hori dela hurbileko politikak garatzeko modurik onena.

Horiek hala direla, hau da gure

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari desblokea ditzala Ekialdeko Barrutiko Batzarrak 2019-2020 aurrekontuan onetsitako ekimenak.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eman diezazkiola eskumen gehiago Ekialdeko Barrutiko Batzarrari, pixkanaka deszentralizatuz joan dadin.

Izpta.: Marta Huarte

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*